

Bere zorraren eta gordailuen kalifikazioa A3an berretsi ditu

Moody's-ek Kutxabanken ratingaren aurreikuspenak egonkor izatetik positibo izatera igo ditu

- Espainiaren rating-egoera hobetu ostean dator igoera, horrek Kutxabanken balorazioa mugatzen baitu

2024ko martxoaren 19an. Moody's nazioarteko agentziak Kutxabank Taldearen balorazio aurreikuspena egonkor izatetik **positibo izatera hobetu** du.

Kalifikazio-agentziak Kutxabanken kaudimen-posizio sendoa, diru-sarrerak sortzeko ahalmena eta bankuaren arriskuaren kalitate nabarmena balioetsi ditu, eta baldintza horiei esker bankuak sendotasunetik egin diezaioke merkatuak nabarmentzen ari diren hobekuntza operatiboari.

Igoera hau erabaki aurretik kalifikazio agentziak Espainiaren profila ere hobetu du, 'Strong-' izatetik 'Strong' mailara, joan den ostiralean Espainiaren rating-aurreikuspenak izandako hobekuntzari jarraituz.

Kutxabanki buruz Moody's-en balorazioak:

	Egungo ratinga
Baseline Credit Assessment	baa1
Long-term Bank Deposit (Epe luzeko ratinga)	A3
Short-term Bank Deposit (Epe laburreko ratinga)	P-2
Senior Unsecured (Domestic)	A3
Long-term Counterparty Risk Rating	A2
Short-term Counterparty Risk Rating	P-1
Long-term Counterparty Risk Assessment	A3 (cr)
Short-term Counterparty Risk Assessment	P-2 (cr)
Junior Senior Unsecured Regular Bond	Baa2
Aurreikuspena	Positiboa

Kutxabanken jardunaren bilakaerari buruzko balorazio positibo hau DBRSren kalifikazioaren igoeraren ondoren gertatu da, agentzia honek joan den urtarrilean A mailara igo baitzuen balorazioa.

Kutxabanken senior zorraren kalifikazioak A3 Positive / A- Stable / A Stable Moodys / Fitch / DBRS-en daude, alorreko kreditu-kalifikazio onenen artean.

Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako finantza erakunde nagusia da. 700 bulego inguru ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulegoen sarea du, eta Andaluzian, Madrilan eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gorako lantaldearekin, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da, eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.